



## IKURRINA, ZURI-GORRI-BERDEA



Arana anaien zirriborroa

Ikurrinak, Euskal Herriko bandera eta ikur nagusi bihurtu denak, 115 urte betetzen ditu aurtengo 2009an. Luis Arana Goirik, Sabinoren anaiak, marraztu zuen 1894an Bizkaiko bandera gisa. Bai, amesten zuten Bizkaia burujabearen ikur izateko sortu zuten ikurrina Arana Goiri anaiek, nazio modernoaren banderak eredu hartuz. Izan ere, ezaguna da Sabino Aranak Ingalaterrarekiko zuen miwesmena eta, hainbat adituek diotenez, Erresuma Batuko banderaren itxura orokorra eman nahi izan zion.

Jakina, hiru elementuk osatzen dute ikurrina zuri-gorri-berdea:

- Oinarri gorriak, Bizkaiaren independentzia irudikatuko luke, historian zehar Bizkaiko bandera gorria izan baita.
- Gurutze zehar berdeak, Gernikako Arbolaren koloreak hartzen ditu eta berarekin Euskal Herriaren lege zaharrak irudikatu nahi ditu.
- Gurutze zuria kristautasunean oinarritzen da eta Jainkoa agertarazi nahi du.

Luis eta Sabino anai Aranatarrek ikurriñari eman nahi zioten sinbolismoa agerian geratu zen: Bizkaia, euskal foruak eta erlijioa, fedea. Hain sustraituta izan eta gainontzeko euskaldunentzat sutsuki aldarrikatzen zituzten hiru zutabeak, hirurak batera eta elkarri lotuta.

Urte bat geroago, 1895ean alegia, sortu zen Euzko Alderdi Jeltzaleak bere egin zuen ikurrina. Era horretara, Bizkaia irudikatzeke jaio bazen ere, laster alboratu zuten hasierako esanahi mugatu hura eta Euskal Herri osoaren ikurtzat hartzen hasi zen ikurrina. Euskaldunon bandera bihurtu zen berehala.



Sabino Arana espetxean



1936an Jose Antonio Agirrek zuzentzen zuen Euzko Jaurlaritzak ofizial egin zuen ikurrina baina laster asko galarazi zuen Francoren gobernuak. Haren diktadurak iraun zuen urte luze haieran guztietan ikurrina oso debekatua eta erasotua izan zen eta horrek ikur anti-frankista bihurtu zuen euskaldunon begietara.

Sona handikoa izan zen Errealeko eta Athletic-eko jokalariek ikurriñarekin zelairatu zirenean Atotxa zaharrean 1976ko abenduan 7an. Hurrengo urtarrilean legeztatu zuten eta 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak ikurrina bandera ofizialtzat hartu zuen.

LA IKURRIÑA  
**Algo más que una bandera.**

Tres cruces, tres colores, tres símbolos: El rojo, el color de la sangre del pueblo vizcaíno; el verde, el color del Árbol de Gernika; y el blanco el del cristianismo. **La ikurriña.** La crearon los hermanos Arana, teniendo como referencia la bandera de Inglaterra, a la que tanto admiraban. La hicieron ondear por primera vez en Bilbao en 1894.

Aunque en un principio fue ideada como símbolo para los vizcaínos, rápidamente, en 1895, es asumida como propia por el PNV y en 1936 el Lehendakari José Antonio Agirre la nombra bandera oficial de Euskadi, siendo prohibida posteriormente por separatista.


L@s vasc@s, nacionalistas o no, pronto se identificaron con ella, convirtiéndola durante los largos años de la dictadura franquista en símbolo de la lucha por la libertad del Pueblo Vasco. Recordáis las tres cintas de la romería a Hernio, o la aparición de la ikurriña en el concurso de perros de Oñati, o la colocación en canteras y sitios estratégicos, o...?

Y así hasta que, antes de su legalización oficial en 1977, Iribar y Kortabarria la exhiben públicamente en el derby de Atotxa en 1976. La ikurriña, que hasta entonces sólo habíamos podíamos disfrutar sin miedo en Iparralde, ondeó posteriormente en todos los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma, así como en muchos Ayuntamientos navarros, hasta que el Gobierno Navarro por medio de "La Ley de Símbolos de 2003" prohibió su colocación en los edificios oficiales.

En Iparralde (Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa) está muy extendida y ondea en muchos ayuntamientos, aunque no es oficial.

Bien bitartean, Nafarroako eremu euskaldunean ere normaltasun osoz agertu izan da erakundeetan, udaletxeetan batez ere. Baina 2003an bertako Parlamentuak ikurrina debekatu zuen erakunde publikoetan. Horrek protesta ugari eragin ditu sektore askotan eta ikurrina sarritan errebindikatu izan da.

Ipar Euskal Herrian, bestalde, folkloreari soilik lotu zaio askotan. Francoren diktadura ilunaren urte zail haietan argitasunarekin eta koloreekin erantzuten zieten Iparraldean nonahi ikus zitezkeen ikurrina zuri-gorri-berdeek, hegoaldeko euskaldunen poz eta gozamenerako. Gaur egun ere, erabili, asko erabiltzen da, baina administrazio frantsesak ez dio inolako balio ofizialik aitortzen.



Ikurriñaren presentziak hamaika bitxikeria eragin du. Nola deitu, bada, Saint Pierre eta Mikelune lurraldearena? Kanadako kostaren ertzean kokatzen da, Ternutik gertu eta Frantziaren menpe dago gaur egun. Euskal arrantzaleak ibili ziren bertan XV. mendetik aurrera, bakailuaren atzetik. Horregatik agertzen omen da gure ikurrina, dotore asko gainera, beraien banderan, Britainiakoa eta Normandia-koarekin batera. Euskal jaiak ere antolatzen dituzte.

Ternu aldean ohore dena, Nafarroan debeku. Marka gero!

**Gehiago jakiteko:**

- Industrializazio garaia Euskal Herrian, 1870-1930 (<http://www.ostadar.net/industrializaziogaraia/>)
- Nabarlur: Historia de la Ikurriña (<http://nabarlur.blogspot.com/2009/05/historia-de-la-ikurrina.html>)
- Ikurriña. Cien años. Iñaki Egaña, ed. Txalaparta.
- Wikipedia (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Ikurrin>)
- Sabino Arana Fundazioa ([www.sabinoarana.org](http://www.sabinoarana.org))